

# ***Metafisikaren* Beta liburuaren izaera dialektikoa *Topikoak* obraren argitan**

JAVIER AGUIRRE SANTOS

ILCLI (UPV/EHU)

## **(The dialectical nature of *Metaphysics'* Beta book in the light of the *Topics*)**

DOI: 10.1387/gogoa.15642

### **Abstract**

*The goal of this paper is to analyze the dialectic nature of Aristotle's *Metaphysics'* Beta in the light of the content, process and utility of the dialectical method exposed by Aristotle in the *Topics*. After analyzing Beta book in the light of the *Topics* we can say that: a) on the nature of the assumptions used in Beta, although most of them are plausible opinions (*endoxa*), many of them are not, but empirical statements that Aristotle gives for good because these are true and self-evident. In addition, Beta *aporiai* are not formulated in terms of the four predicables; b) regarding the procedure of Beta, the development of *aporiai* adapts effectively to *diaporetic* method described in *Top. I* and dialectic dispute exposed in *Top. VIII*. However, Beta does not use polysemy, similarities and differences about terms included in the formulation of *aporiai*, neither uses *topoi*, argumentative schemes; c) Finally, as to the validity, the aim of Beta book is to reflect about the first principles of first philosophy and about the truth and falsity of plausible views concerning those first principles.*

**Keywords:** *Metaphysics, Topics, dialectic, diaporetic, endoxa.*

### **(I)**

Testu bat dialektikoa dela baieztatzeak zer adierazten duen, eta Aristotelesen obran baliabide dialektikoek zer toki betetzen duten, horra eztabaida handia sortu duten ikergaiak, gehienbat xx. mendeko azken hamarkadetan. Izan ere, mende horretako lehenengo erdian Aristotelesen dialektikaren in-

guruko ikerketa gutxi egin izan bazen ere, 50eko hamarkadatik aurrera interes handia piztu zen, bai filosofoaren dialektikaren ezaugarri nagusiak deskribatzeko, bai filosofoaren obra osoan dialektikak zer toki betetzen duen argitzeko. Aristotelesen dialektikarekiko interes berriak zenbait lan garrantzitsuren argitalpena ekarri zuen, eta horrekin batera, ikergaitzat dialektika aristotelikoa aukeratu zuten Oxford (1963) eta Padua (1967) hirietako garrantzizko bilera akademikoek<sup>1</sup>. Bi hamarkada horietako lehenengo lanei aditu askoren ekarpen berri eta garrantzitsuak gaineratuko zaizkie ondorengo urteetan<sup>2</sup>. Testuinguru horretan, azpimarratzekoa da antzinateko dialektikaren hainbat alderdiri buruz urteetan zehar Pierre Aubenque eta Enrico Berti adituek garatu duten lan sendo eta emankorra, eta baita Cristina Rossittoren ekarpen berriagoa ere. Hiru adituon lanak argitaratu berri diren hiru bilduma baliotsutan bildu dira<sup>3</sup>. Aipaturiko material baliotsuok kontuan hartuta, artikulua honetan erantzun nahi den galdera ondokoa da: *Topikoen* edukien argitara, zer toki betetzen du dialektika aristotelikoa *Metafisikaren* Beta liburua-aren osieran? Eta zehatzagoa den galdera honi ere erantzun nahi zaio: zein neurritan betetzen dituzte Beta liburua-aren premiseak, prozedura diaporetikoak eta baliagarritasunak *Topikoetan* ezarritako baldintza dialektikoak? Galdera haiei erantzuten saiatuko naiz ondorengo orrietan.

## (II)

*Topikoen* I. liburua-aren lehenengo ataletan, Aristotelesek argitzen du zein diren premisen eta arrazoibideen edukia eta prozedura, eta zein den metodo dialektikoaren baliagarritasuna. *Topikoen* hasieran, filosofoak bere obraren helburua adierazten du: «aurkitzea metodo bat, zeinetan iritzi onargarrietatik abiatuko ginatkeen eta proposaturiko problema orori buruz deduktiboki arrazoitu ahal izango genukeen, eta enuntziatu bati eusten badiogu, haren kontrako ezer esango ez genukeen» (*Top.* I, 1, 100<sup>a</sup>18-21)<sup>4</sup>. Zenbait lerro beherago, Aristotelesek lehenengo deskribapen horren terminoak argitzen ditu. Izan ere, haren hitzetan «Silogismo bat diskurtso bat da non, zenbait

<sup>1</sup> Mendeko lehenengo erdian lan bikainak argitaratu ziren, besteak beste Regis (1935) eta Le Blondenak (1939), baina ondorengo hamarkadak askoz aberatsagoak izango ziren. Izan ere, Aristotelesen dialektikaren izaerari buruz, ekarpen garrantzitsuak ditugu, besteak beste honako hauek: Weil (1951), Croissant (1986 [1951]), Perelman (1952, 1958), Vianno (1958), Lugarini (1959, 1972 [1961]), Sichirrollo (1963, 1965), eta Brunshwig (1967), non egileak *Topikoen* inguruan sarrera zabala eta jakintsua egiten duen. Bestalde, Oxford eta Padua-ko bileretako aktak Owen (1968) eta Dianoren (1970) bildumetan argitaratu ziren.

<sup>2</sup> Nabarmendu behar dira, besteak beste, Leszl (1970, 1975), Sichirrollo (1973), Evans (1977), Couloubaritsis (1978-1979), Irwin (1976-1977) eta Barnes (1980).

<sup>3</sup> Ondoko hiru artikulua-bilduma dira: Aubenque (2009), Berti (2008) y Rossitto (2000).

<sup>4</sup> Μέθοδον εὐρεῖν, ἀφ' ἧς δυνησόμεθα συλλογίζεσθαι περὶ παντὸς τοῦ προτεθέντος προβλήματος ἐξ ἐνδόξων, καὶ αὐτοὶ λόγον ὑπέχοντες μὴθὲν ἐροῦμεν ὑπεναντίον.

ezarrita, ezarritakoaren bidez, nahitaez ezarritakoa ez den beste zerbait ateratzen den. Frogapenean edo demostrazioan-silogismoa gauza egiazko eta lehenetatik abiatzen da; edo gauza egiazko eta lehenen bidez ezagututako gauzetatik abiatzen da; silogismo dialektikoa, berriz, gauza onargarrietatik abiatuta osaturiko arrazoibidea da» (*Top.* I, 1, 100<sup>a</sup>29-30)<sup>5</sup>. Aristotelesen iritziz, premisa egiazko eta lehenak *berezko*, ez besteen bidezko, sinesgarritasuna dutenak dira; onargarriak, berriz, «denei edo gehienei, edo jakintsuei, eta, jakintsuen artean, denei edo gehienei, edo ezagunenei edo ospetsuenei egokiak iruditzen zaizkienak dira» (*Top.* I, 1, 100b21-23)<sup>6</sup>. Beraz, badira, alde batetik, frogapenik behar ez duten proposizioak eta, beste aldetik, onartu edo baztertu aurretik miatu behar direnak, jakiteko egiazkoak ala faltsuak diren.

*Top.* I, 10 atalean premisa dialektikoaren eta problema dialektikoaren izaera aztertzen duenean, Aristotelesek gaineratzen du inolaz ere ezin daitekeela premisa dialektikotzat hartu inori onargarri iruditzen ez zaiona, eta ezta denei edo gehienei agerikoa iruditzen zaiena ere; bestalde, Aristotelesek dialektikotzat hartuko ditu era kontraesankorrean planteatuak direnak<sup>7</sup>, baita zientzia ezagunei dagozkien iritziekin bat datozen iritziak<sup>8</sup> ere. Ondoren, metodo dialektikoaren baliagarritasun filosofikoa aztertzean, Aristotelesek baieztatzen du «aporiaren bi aldeak aztertu ahal izanik, errazago berezitu dugu[la] gauza bakoitzaren egia eta faltsutasuna; gainera, baliagarria dela? zientzia bakoitzaren printzipioei dagozkien lehenengo gaietarako ere» (*Top.* I, 2, 101a34-36)<sup>9</sup>. Deskribapen horrek metodo dialektikoaren baliagarritasuna ez ezik, dialektikaren prozedura mota bat ere erakusten digu, alegia, metodo diaporetikoa. Beraz, Aristotelesen azalpenari jarraituz, egia eta faltsutasuna errazago bereizteko, beharrezkoa da ezagutza bakoitzaren lehenengo gaietaz buruz hausnartzea kontu haien inguruko iritzi onargarrietatik abiatuz<sup>10</sup>.

*Topikoen* I. liburuaren lehenengo pasarteetan esandako guztitik, metodo dialektikoari buruzko funtsezko hiru ideia jaso daitezke: 1) arrazoibide dialektikoa eta frogapena arau berberen menpe badaude ere, arrazoibide dialek-

<sup>5</sup> Ἔστι δὴ συλλογισμὸς λόγος ἐν ᾧ τεθέντων τινῶν ἕτερόν τι τῶν κειμένων ἐξ ἀνάγκης συμβαίνει διὰ τῶν κειμένων. Απόδειξις μὲν οὖν ἐστίν, ὅταν ἐξ ἀληθῶν καὶ πρώτων ὁ συλλογισμὸς ᾗ, ἢ ἐκ τοιούτων ἃ διὰ τινῶν πρώτων καὶ ἀληθῶν τῆς περὶ αὐτὰ γνώσεως τὴν ἀρχὴν εἴληφεν· διαλεκτικός δὲ συλλογισμὸς ὁ ἐξ ἐνδόξων συλλογιζόμενος.

<sup>6</sup> Ἐνδοξα δὲ τὰ δοκούντα πᾶσιν ἢ τοῖς πλείστοις ἢ τοῖς σοφοῖς, καὶ τούτοις ἢ πᾶσιν ἢ τοῖς πλείστοις ἢ τοῖς μάλιστα γνωρίμοις καὶ ἐνδόξοις.

<sup>7</sup> Horrela, bada, «adiskideei ongia egin behar zaie» proposiziotik bere kontraesankorra eraiki daiteke, alegia, «adiskideei ez zaie gaizkia egin behar». Aristotelesentzat biak ala biak proposizio dialektikoak dira.

<sup>8</sup> Adibide gisa, Aristotelesek sendagilearen sendagintzari buruzko eta geometrialarien geometriari buruzko iritziak aipatzen ditu.

<sup>9</sup> Πρὸς δὲ τὰς κατὰ φιλοσοφίαν ἐπιστήμας, ὅτι δυνάμενοι πρὸς ἀμφοτέρα διαπορῆσαι ῥῶον ἐν ἐκάστοις κατοψόμεθα τᾷληθές τε καὶ τὸ ψεῦδος. Ἐτι δὲ πρὸς τὰ πρώτα τῶν περὶ ἐκάστην ἐπιστήμην ἀρχῶν.

<sup>10</sup> Cf. *Top.* I, 2, 101b1-2.

tikoak ez ditu premisa egiazko eta lehenak baliatzen, iritzi onargarriak baizik; 2) prozedura dialektikoaren berezko metodoa metodo diaporetikoa da, hau da, gai jakin bati buruzko iritzi onargarrien azterketa edo *ibilbidea*; 3) metodo dialektikoaren balioak bi dira: lehenik, haren bidez frogapenaren bidez ezarri ezin daitezkeen printzipio lehenei buruz hausnartu daiteke; bigarrenik, haren bidez printzipio lehenen inguruko iritzien egiaz eta faltsutasunaz hausnartu daiteke.

Hura da, hain zuzen, arimaren izaera aztertzeko Aristotelesek jarraitu duen metodoa, *De Anima* tratatuaren hasieran adierazten duen moduan: «Arimaren inguruan aztertzen ari garenez, beharrezkoa da aurrera joan ahala, aporiak zeharkatu eta haiei irtenbide bat aurkitzea, eta, aldi berean, arimari buruz zerbait esan zuten aurrekoen iritzia biltzea: horrela, zuzen esan zutena onartuko dugu, eta zerbait oker esan bazuten, arretaz hartuko dugu» (*An. I, 2, 403b20-24*)<sup>11</sup>. Arimaren izaerari buruzko hasierako planteamendua eta ondorengo prozedura Aristotelesek metodo dialektikoari buruz *Topikoetan* esandakoari egokitzen zaizkio. Izan ere, prozedurari dagokionez, premisa onargarrien erabilera eta norgehiagokazko metodo diaporetikoen garapena onartzen ditu; eta baliagarritasunari dagokionez, gai bakoitzean egia eta faltsukeria bereiztea eta, iritzi onargarrietatik abiatuta, printzipio lehenak ezartzen saiatzen da. Gauza bera esan daiteke *irmotasuna* bertutearen izaeraz *Nikomakori Etika*-n egiten duen ikerketari buruz. Izan ere, pasarte ospetsu batean Aristotelesek prozesu diaporetiko osoaren fase guztiak deskribatzen ditu: «Gainerako kasuetan bezala, ageriko gertaerak ezarri eta lehenengo aporiak zeharkatu ondoren, pasio horien inguruko iritzi onargarri guztiak frogatu behar dira; baina iritzi onargarri guztiok frogatu ezin badira, orduan gehienak eta garrantzitsuenak frogatu behar dira; aporiak ebatzen badira eta iritzi onargarrienak ontzat hartzen badira, frogapena nahikoa izango baita.» (*EN VII, 1, 1145b2-7*)<sup>12</sup>. Aristotelesen obretan ohikoa izango da, hain zuzen, metodo diaporetikoen iritzi onargarrien azterketa zientzietako printzipio lehenak ezarri behar direnean.

Lehenengo begiradan, badirudi *Metafisika*-ren Beta liburuak *Topikoetako* baldintzak betetzen dituela testu dialektikotzat hartua izan ahal izateko. Izan ere, Aristotelesek Beta liburuari hasiera ematen dio filosofia lehenaren inguruko ikerketarako metodo diaporetikoen baliagarritasuna aldarrikatuz: «Bilatzen ari garen zientziari begira, beharrezkoa da aurrena hel diezaiegun aporiak planteatzera eraman gaituzten gaiak. Aztergai horiei buruz batzuek guk

<sup>11</sup> Ἐπισκοποῦντας δὲ περὶ ψυχῆς ἀναγκαῖον ἅμα διαποροῦντας περὶ ὧν εὐπορεῖν δεῖ, προελθόντας τὰς τῶν προτέρων δόξας συμπαραλαμβάνειν ὅσοι τι περὶ αὐτῆς ἀπεφάναντο, ὅπως τὰ μὲν καλῶς εἰρημένα λάβωμεν, εἰ δὲ τι μὴ καλῶς, τοῦτ' εὐλαβηθῶμεν.

<sup>12</sup> Δεῖ δ' ὅσπερ ἐπὶ τῶν ἄλλων, τιθέντας τὰ φαινόμενα καὶ πρῶτον διαπορήσαντας οὕτω δεικνύναι μάλιστα μὲν πάντα τὰ ἐνδοξα περὶ ταῦτα τὰ πάθη εἰ δὲ μή, τὰ πλείιστα καὶ κυριώτατα: ἐὰν γὰρ λύηται τε τὰ δυσχερῆ καὶ καταλείπηται τὰ ἐνδοξα, δεδειγμένον ἂν εἴ ἰκανῶς.

ez bezalako iritziak agertu dituztenean, eta horretaz gain, inera aztergai horietakoren bat kontuan hartu ez dutenean. Aporiei irtenbide egokia aurkitu nahi dietenentzat baliozgarria da haiek xehetasunez aztertzea (...). Bestalde, auzietan bezala, erabakitzeke egoera hobean dago nahitaez gatazkan dauden argudio guztiak entzun dituen» (*Met.* III, 1, 995a25-b3)<sup>13</sup>.

Pasarte horretan baieztaturikoa bat dator, hain zuzen, filosofoak *Topikoak* I, *De Arima* I eta *Nikomakori Etika* VII liburuetan azaldutakoarekin. Bestalde, Beta-ren lehenengo lau aporiak —*bilaturiko zientziari* buruzkoak direnak—, alde batera uzten baditugu, beste gainontzeko guztiak —hamaika, hain zuzen— bilaturiko zientziaren printzipioei dagozkie, bai esplizituki, bai zeharbidez, formatzat ulerturiko substantziari dagozkion aldetik, kontuan harturik forma errealtate bakoitzaren imanaren (?) eta ulergarritasunaren printzipioa dela.<sup>14</sup> Beraz, lehenengo gerturatze batean, *Metafisikaren* Beta liburua metodo dialektikori buruz *Topikoen* I liburuan ezarritako baldintzak betetzen dituela baieztatu daiteke, Betak erabilitako premisak dialektikoak direlako, haren prozedura dialektikoa delako, eta haren balio filosofikoak demostrazioaren edo frogapenaren bidez ezarri ezin daitezkeen printzipio leheni buruz hausnartzea eta printzipio lehenen inguruko iritzien egiaz eta faltsutasunaz hausnartzea direlako. Bestalde, Aristotelesekin esplizituki lotzen du Beta liburua azalpena *dialektikoek* ikasten dutenarekin, haien ikerketak «soilik iritzi onargarrietatik» egiten dituztelako (*Met.* III, 1, 995b25)<sup>15</sup>.

Hala ere, gure gaia zorroztasunez aztertu ahal izateko, baliagarria izango da xehetasunez alderatzea Beta liburua edukiak eta prozedura *Topikoen* osagai diren zortzi liburuaren azalpenak<sup>16</sup>.

### (III)

Premisa dialektikoek dagokienez, esana dugu *Topikoetako* deskribapenaren arabera haien izaera onargarritasunean oinarritua dela, hau da, *endoxikoa*. Beta liburuan erabilitako premisa guztiak hartzen baditugu<sup>17</sup>, haietako gehienak *endoxak* direla ikus dezakegu, hau da: iritzi onargarriak. Beta libu-

<sup>13</sup> Ανάγκη πρὸς τὴν ἐπιζητούμενην ἐπιστήμην ἐπελθεῖν ἡμᾶς πρῶτον περὶ ὧν ἀπορήσαι δεῖ πρῶτον: ταῦτα δ' ἐστὶν ὅσα τε περὶ αὐτῶν ἄλλως ὑπελήφασί τινες, κἂν εἴ τι χωρὶς τούτων τυγχάνει παρεωραμένον. ἔστι δὲ τοῖς εὐπορήσαι βουλομένοις προὔργου τὸ διαπορήσαι καλῶς (...) ἔτι δὲ βέλτιον ἀνάγκη ἔχειν πρὸς τὸ κρίναι τὸν ὄσπερ ἀντιδίκων καὶ τῶν ἀμφισβητούντων λόγων ἀκηκοῦτα πάντων.

<sup>14</sup> 6., 7., 9., 10., 14. eta 15. aporiak printzipioei buruzkoak dira; 5., 8., 11., 12. eta 13. aporiak substantziari buruzkoak.

<sup>15</sup> Ἐκ τῶν ἐνδόξων μόνων.

<sup>16</sup> *Metafisikaren* liburu aporetikoei eta jakintzaren osieran haiek duten garrantziari buruz berriki argitaratu dira ondoko lan monografikoak: Madigan (1999), Motte & Rutten (2001), Celluprica (2003) eta Aguirre (2007).

<sup>17</sup> Beta liburua hamabost aporien garapenean Madiganek (1999) 124 premisa bildu ditu.

ruko premisek filosofo presokratiko naturalistek, alde batetik, eta pitagorikoek eta Platonek, beste aldetik, defendaturiko iritzi-bilduma heterogeneo bat osatzen dute<sup>18</sup>. Badira premisak inongo pentsalari zuzenari egotzi ezin dakizkiokeenak<sup>19</sup>, eta badira beste batzuk, azkenik, inongo tradiziokoak ez direnak, Aristotelesek berak pentsatuak baitira<sup>20</sup>. Beste aldetik, haien guztien artean, badira Aristotelesek onartzen zituen premisa asko, alde batera utzita jatorriz hark berak ala beste batek defendatu zituen edo tradizio batean ala bestean garatu ziren, eta haietako beste asko Aristotelesek berak baztertu egiten zituen. Eta badira beste premisa batzuk, azkenik, filosofoak onar ala bazter litzakeenak premisen zenbait termino anbiguori emandako esanahia argituko balitz<sup>21</sup>. Horrela, bada, Beta liburuak erabilitako premisa gehienak, iritzi onargarriak direnez, baieztatu daiteke aporien liburuak premisa dialektikoei buruz *Topikoetan* ezarritako baldintza nagusia betetzen duela. Hala ere, gai horri dagokionez, gaineratu behar da Aristotelesek Beta liburuan garaturiko arrazoibideen premisa guztiak ez direla iritzi onargarriak; aitzitik, Beta liburuko premisen artean, egiazkoak eta berez agerikoak diren eta, ondorioz, frogapenik behar ez duten proposizio batzuk ere aurkitzen ditugu premisa gisa; premisa ez *endoxikoen* artean sartzen dira, besteak beste, baieztapen hauek egiten dituzten proposizioak: badagoela unibertso bat ilargia, eguzkia eta izarrak bere barnean hartzen dituen; gure munduak bere barnean lurra, animaliak eta tresnak hartzen dituela; gure mundua mugimenduan dagoela; gizakiek zentzumenen bidez ezagutzen dutela; zientziak eta arteak izan litezkeenak direla; edo frogapenetan hirugarren baztertuaren eta kontraesanik ezaren printzipio logikoak indarrean daudela. Beraz, gaineratu behar da Beta liburuak analizaturiko hamabost aporien inguruko arrazoibideen premisa gehienak premisa dialektikotzat har daitezkeen iritzi onargarriak badira ere, badirela, beste aldetik, Aristotelesek eztabaidatu eta zalantzan jartzen ez dituen gertaera-proposizioak, filosofoak ontzat ematen dituenak eta, are gehiago, bere ikuskera filosofiko propioaren oinarrian kokaturik daudenak.

Horrela, bada, arrazoibide dialektikoen premisen izaera *endoxikoari* dagokionez, Beta liburuak neurri handi batean betetzen du *Topikoetan* ezarritako baldintza, baina ez guztiz. Beste aldetik, *Topikoetako* deskribapenaren arabera, izaera *endoxikoa* ez da premisa dialektikoei bete behar duten baldintza bakarra; izan ere, Aristotelesek metodo dialektikoaren funtsezko osagaien

<sup>18</sup> Aporia gehienek garapen diaporetikoan Aristotelesek premisa enpiriko-inmanentistak eta premisa ideal-traszendentalistak biltzen ditu tesiari eta antitesiari hurrenez hurren eusteko.

<sup>19</sup> «badira baieztatzen dutenak...», «badirudi...» eta antzeko esamoldeen bidez aurkezten dira.

<sup>20</sup> Besteak beste, «bilaturiko zientzia»-ri buruzko lehenengo lau aporien garapenean erabilitako premisetako batzuk edo printzipioen potentziazko edo egintzazko izaeraz galdetzen duen 14. garren aporiaren premisak.

<sup>21</sup> Sail hartan Aristotelesen filosofia lehenaren zenbait oinarritzko termino aipatu litezke, besteak beste «bat», «izan» edo «printzipio».

analisiari heltzen dionean, *Top.* I, 4 atalean baieztatzen du «proposizio orok eta problema orok dela genero bat, dela berezko bat dela akzidente bat adierazten dute; den-dena haietara mugatzen da: berezkoa edo definizioa edo generoa edo akzidentea» (*Top.* I, 4, 101b15-25)<sup>22</sup>. Aristotelesek argiro eta luzaro adierazitakoaren arabera, aipaturiko lau predikableak dira premisa eta problema dialektikoak osatzen dituztenak. Baldintza horri dagokionez, azpimarratu behar da Beta liburuaren aporiak osatzen dituzten premisak eta proposizioak ez direla planteatzen orokorrean lau predikableen terminotan. Izan ere, Beta liburuaren garapen dialektikoaren bidez filosofoa saiatzten da, bai *bilaturiko zientziaren* ikergaiak argitzen, bai substantziaren eta printzipio lehenen ezaugarriak argitzen; helburu bata eta bestea ez dira erraz egokitzen lau predikableen terminoen bidezko planteamendura. Baldintza horri dagokionez esan behar da, beraz, premisa eta problema dialektikoak osatzean Beta liburuak ez duela lau predikableen baldintza betetzen. Beta liburuaren izaera dialektikoa ebaluatzerakoan, kontuan hartu beharko da gabezia hura, kontuan izanda obraren gorputza, hots, lau predikableen inguruko ikerketa *Topikoen* II-VII liburuek egiten dutela. Azken pasarteetan esandako guztiak irakurlea eramanez lezake *Metafisikaren* Beta liburuaren izaera dialektikoa zalantzan jartzera. Baina, beste aldetik, liburu horretako aporien adierazpena kontuan hartzen badugu, ikusten dugu *formalki*, hau da, egiturari dagokionez, guztiz egokitzen zaizkiola Aristotelesek adierazitakoari, bai premisa eta problema dialektikoen egiturari dagokionez, baita gatazka dialektikoaren prozedurari dagokionez ere, *Top.* I, 4 eta *Top.* VIII liburuetan hurrenez hurren deskribaturik dagoen moduan.. Izan ere, premisa eta problema dialektikoei buruz, *Top.* I, 4an filosofoak ondokoa baieztatzen du: «problema eta definizioa moduan bereizten dira. Izan ere, «oinezko *hankabidun animalia*» *gizakiaren definizioa al da?* eta «*animalia*» *gizakiaren generoa al da?* esatean proposizio bat osatzen da; aitzitik, «oinezko *hankabidun animalia*» *gizakiaren definizioa da ala ez?* esatean problema bat osatzen da» (*Top.* I, 4, 101b28-33)<sup>23</sup>. Agerikoa da Beta liburuaren aporien adierazpenak *Top.* I, 4-k deskribaturiko itxura hartzen duela; izan ere, aporien adierazpena horrelakoa da: 1. *Zientzia bat bederari al dagokio kausa mota guztiak ikertzea?*; 2. *Zientzia bat bederari al dagokio printzipio frogagarriak edo demostratiboak ikertzea?* 3. *Zientzia bat be-*

<sup>22</sup> Πᾶσα δὲ πρότασις καὶ πᾶν πρόβλημα ἢ γένος ἢ ἴδιον ἢ συμβεβηκὸς δηλοῖ (...) τὰ πάντα συμβαίνει γίνεσθαι, ἢ ἴδιον ἢ ὄρον ἢ γένος ἢ συμβεβηκός. *Top.* I, 5 atalean Aristotelesek berak egindako deskribapenaren arabera, *definizioa* esentzia edo zerizana adierazten duen enuntziatua da; *berezkoa*, zerizana adierazten ez badu ere, objektu horretan soilik ematen dena eta predikazioan objektuaren ordez ager daitekeena da; *generoa*, esentziaren barruan espezie desberdineko diren subjeto batzuek predikatzen dena da; *akzidentea*, azkenik, hiruotako bat ez izanik, objektu batean ematen dena da, edo objektu berean eman ala ez eman daitekeena da.

<sup>23</sup> Διαφέρει δὲ τὸ πρόβλημα καὶ ἡ πρότασις τῷ τρόπῳ. Οὕτω μὲν γὰρ ῥηθέντος, ἄρα γε τὸ ζῶον πεζὸν δίπουν ὀρισμὸς ἐστὶν ἀνθρώπου; καὶ ἄρα γε τὸ ζῶον γένος ἐστὶ τοῦ ἀνθρώπου; πρότασις γίνεται. Ἐὰν δέ, πότερον τὸ ζῶον πεζὸν δίπουν ὀρισμὸς ἐστὶν ἀνθρώπου ἢ οὐ; καὶ πότερον τὸ ζῶον γένος ἐστὶν; πρόβλημα γίνεται.

*derari al dagokio entitate edo substantzia mota guztiak ikertzea? 4. Zientzia bakar bat bederari al dagokio akzidenteak ere ikertzea ala entitateak bakarrik ikertu behar ditu? 5. Entitate edo substantzia sentigarriez gain, ba al dago bestelakorik? 6. Printzipio lehenak generoak ala osagai materialak dira? 7. Printzipio lehenak genero gorenak ala azkenengo generoak dira? 8. Substantzia singularrez gain, ba al dago besterik ezer? 9. Printzipioen batasuna espezieari soilik dagokio ala zenbakiari ere bai? 10. Printzipio berberak al dira gauza ustelgarrien printzipioak eta gauza ustelezinenak? 11. Dena eta Bata gauzen entitateak edo substantziak dira ala ez?; 12. Zenbakiak eta entitate edo errealitate geometrikoak entitateak edo substantziak dira ala ez? 13. Gauza sentigarriez eta bitartekoez gain, Formak existitzen dira ala ez? 14. Printzipioak potentzian ala egintzan dira? 15. Printzipioak unibertsalak ala singularrak dira?*

Ikus daitekeenez, zerrendaturiko aporietan beti ematen da gatazka-egoera bat non, oinarrizko planteamendu filosofiko baten aurrean, kontrako eta baztertzaille diren bi erantzun edo irtenbide garatu daitezkeen. Zentzu horretan, Beta liburuak *Top.* I, 4 atalean esandakoari jarraitzen dio. Bestalde, dialektika ez da erantzunaz edo irtenbidez arduratzen; aitzitik, Aristotelesen ikuspegian, dialektika oinarrizko arazo filosofiko jakin bati buruz eta aurkari filosofiko baten aurrean galdera-erantzunen bidez entzuleak konbentzitzeko metodo gisa azaltzen da, ez diskurtsoaren eta egiaren arteko loturaren bidez, iritzirik onargarrienaren komunikazioaren bidez baizik. Zentzu horretan, Beta liburuaren prozesu diaporetikoaren eskemak ere *Topikoen* VIII. liburuan azalduko *eztabaida dialektikoari* jarraitzen dio. Izan ere, *Topikoen* azken liburuan Aristotelesen zehatz-mehatz deskribatzen du *eztabaida dialektikoa*, eskola filosofikoetan (baita asanbladetan eta erakunde juridikoetan ere) garaturiko eztabaidak eredutzat hartzen dituen jarduera teorikoa dena. Bestela esanda, *Metafisikaren* Beta liburuen aporien garapenak eta *Topikoen* VIII. liburuen deskribaturiko *eztabaida dialektikoak* egitura berbera dute. Izan ere, eztabaida dialektikoan bi partaidek hartzen dute parte, non, tesi jakin bati buruz, lehiakide bat tesia defendatzen eta beste lehiakidea tesiari kontra egiten saiatzen diren. Jokua agonistikoa da eta galdera-erantzunen bidez garatzen da; hala ere, prozedura agonistikoa den arren, bi lehiakideek helburu bera dute, alegia, ahalik eta zehatzen tesi jakin baten baieztapenaren eta ezeztapenaren ondorioak argitzea, eta horren bidez azterturiko arazoaren irtenbidea aurkitzen laguntzea. Beta liburuen aporien garapenean, *Topikoen* VIII. liburuen eztabaida dialektikoa *barneko egitura dialogiko* bihurtzen dela esan liteke. Esandako guztia Beta liburuen zenbait alderditan irudikatu daiteke: 1) *Top.* VIII.ean Aristotelesen baieztatzen du eztabaidaturiko arazo teorikoa ezin daitekeela izan egia ukaezin bat, arazo polemiko bat baizik, non bi aukera kontrako plazaratzen diren. Izan ere, *Top.* I 4an eredutzat aukeraturiko arazoa ondoko hau da: «*oinezko hankabidun animalia*» *gizakiaren definizioa da ala ez?* Arazo dialektikoa, beraz, *bai ala ez (póteron... e ou)* egiturako proposizio simple bat da. Beta liburuan planteaturiko aporia gehienek egitura bera dute,

goiko aporien eskeman ikusi dugunez; 2) *Top.* VIII.ean Aristotelesekin planteatzen du eztabaidaturiko arazoaren bi erantzunek antzeko indar limurtzailea izan behar dutela. Eta hori da, hain zuzen, filosofoak aporien garapenean egiten duena. Adibide gisa, hamabigarren aporia hartu dezakegu: aporia honen garapenean, Aristoteles saiatzen da tesiaren aldeko eta tesiaren kontrako antzeko argudio limurtzaileak ematen, eta horretarako premisa dialektikoak pilatzen ditu. Tesiaren alde: zenbakiak eta errealtate geometrikoak substantziak ez badira, ez da ulertzen zein izan daitezkeen gauzen substantziak; izan ere, a) ez gorputzen afekzioak, subjektu behar baitute existitzeko eta predikatzeko; b) gorputzak ere ez, errealtate geometrikoek gorputzek baina neurri handiagoan baitirudite substantziak. Tesiaren kontra: zenbakiak eta errealtatea substantziak badira, orduan: a) zabalerak eta puntuak gorputzak baino neurri handiagoan dira substantziak, eta, bestalde, ez da ikusten zein gorputzen substantziak diren; orduan ez da inolako substantziarik izango; b) ez dirudite substantziak, gorputzen zatiketak baizik; c) ez daude gorputzetan egintzan, potentzian baizik; d) ez dira sortzen eta usteltzen sorreraren eta ustelduraren bidez, substantziekin gertatzen deu bezala; e) ez da ulertzen puntua, zatiezina izanik, nola sortuko eta ustelduko den; f) determinazio geometrikoak orainaldiko unea bezalakoak dira, alegia, mugak eta zatiketak; 3) *Top.* VIII.ean Aristotelesekin azpiko lehenengo printzipiotan oinarritutako froga gezurtatzaileen kateatze zorrotza eskatzen du. Hamabigarren aporiari dagokionez, tesiaren argibide gezurtatzailearen abiapuntua *substantzia oro, ezinbestez, zerbait iraunkorra (choristón) eta zehaztua (tóde ti) izan behar duela dioen printzipioa* omen da. Eta antitesiaren argibide gezurtatzailearen abiapuntua *substantziak egintzan direla eta substantziak sorreraren eta ustelduraren bidez sortzen eta usteltzen direla dioten printzipioak* omen dira. Adibide gutxi horiek, Betaren gainontzeko aporien garapenari gaineratu zaizkienek, erakusten dute Betan garaturiko metodo diaporetikoa, neurri handi batean, *Topikoen* VIII liburuan Aristotelesekin deskribaturiko gatazka dialektikoari egokitzen zaiona.

Hala eta guztiz ere, badira prozedura dialektikoaren baliabideei eta topikoen (*topoi*) erabilerari buruzko gatazka dialektikoaren bi oinarritzko baldintza, Betak betetzen ez dituenak: *Top.* I, 13-18 ataletan aztertutako prozedura dialektikoaren baliabideei dagokienez, Aristotelesekin baieztatzen du «arrazoibideei irteera bat aurkitzeko baliatzen ditugun baliabideak lau direla: lehenengoa, proposizioak hartzea; bigarrenik, berezitu ahal izatea termino bakoitza zenbat modutan esaten den; hirugarrenik, desberdintasunak aurkitzea; eta laugarrenik, antzekotasunaren behatzea» (*Top.* I, 13, 105a 23-25)<sup>24</sup>. Pasarte horrek argi uzten du proposizio dialektikoak biltzerakoan kontuan hartu behar dena ez dela soilik proposizio-kopuruaren handitasuna (cf.

<sup>24</sup> Τὰ δ' ὄργανα δι' ὧν εὐπορήσομεν τῶν συλλογισμῶν ἐστὶ τέτταρα, ἐν μὲν τὸ πρότασις λαβεῖν, δεύτερον δὲ τὸ ποσαχῶς ἕκαστον λέγεται δύνασθαι διελεῖν, τρίτον (δέ) τὸ τὰς διαφορὰς εὐρεῖν, τέταρτον δὲ ἢ τοῦ ὁμοίου σκέψις.

*Top.* I, 14); kontuan hartu behar direla, baita ere, proposizioaren termino jakin baten esanahi-aniztasuna, (cf. *Top.* I, 15), haien antzeko esanahiak (cf. *Top.* I, 17) eta desberdintasunak (cf. *Top.* I, 16). Beta liburuan, berriz, Aristotelesek bilduriko premisa dialektikoen artean badira termino polisemikoak dituztenak, baina filosofoa inoiz ez da esanahi-aniztasuna argitzen saiatuko<sup>25</sup>. Bigarrenik, *Topikoen* VIII liburuararen deskribapenaren arabera, gatazka dialektikoaren bi lehiakideak *Topikoen* II-VII liburuetan bilduriko *topoi*-z baliatzen dira. Esana dago, hain zuzen, liburu haiek *Topikoak* tratatuaren gorputza betetzen dutela. Gai hari dagokionez, azpimarratu behar da Beta liburua iritzi onargarriak lau predikableen terminotan formulatzea baztertzeko duela eta ez dela *topoi*-ez baliatzen. Beraz, esan liteke, amaitzeko, Beta liburua *Topikoen* I. eta VIII. liburuetan azalduko baldintza orokorreki egokitzen bazaie ere, *Topikoen* II-VII liburuetan bilduriko eta ikerturiko arrazoibide eskemak alde batera uzten dituela.

## Ondorioak

*Topikoetan* Aristotelesek garaturiko metodo dialektikoaren edukiak, prozedurak eta baliagarritasuna aztertu ondoren, *Metafisikaren* Beta liburuararen izaera dialektikoari buruz ondoko ondorioak atera ditzakegu: a) Beta-ren premisak, gehienak iritzi onargarriak (*endoxa*) badira ere, beste batzuk, ustez egiazkoak eta berez agerikoak izanik, Aristotelesek ontzat ematen dituen enunziazio enpirikoak dira. Bestalde, Beta-ren aporiak ez daude lau predikableen terminoetan adierazita; b) Betaren prozedurari dagokionez, aporien garapena *Top.* I liburuan azalduko metodo diaporetikoari eta *Top.* VIII liburuan deskribaturiko gatazka dialektikoari egokitzen zaie. Beta ez da aporien terminoen polisemiaz, antzekotasunez eta desberdintasunez baliatzen, ezta *topoi*z edo argudio-eskemez ere; c) azkenik, baliagarritasunari dagokionez, Beta-ren helburua filosofia lehenaren lehenengo printzipioei buruz eta printzipio horien inuruko iritzi onargarrien egitari eta faltsutasunari buruz hausnartzea da.

## Erreferentzia bibliografikoak

- AGUIRRE, Javier (2007), *La aporía en Aristóteles. Libros B y K 1-2 de la Metafísica*. Madrid: Dykinson.
- (2010), «Dialéctica, diaporética y saber positivo en la *Metafísica* de Aristóteles». *ÉNDOXA: Series Filosóficas*, no 26, 2010, pp.11-41. UNED, Madrid.

<sup>25</sup> Besteak beste, «izan», «bat» eta «printzipio» terminoak. Azpimarratu behar da, bestalde, betebeharrak Aristotelesek *Metafisikaren* erdiko liburuetan betetzen duela. Hura dela eta, indarrez azpimarratu behar da Aristotelesen filosofia lehenen Beta liburuan garaturiko fase diaporetikotik harantzago doala. Gai horri dagokionez ikus daitezke: Aguirre (2010) eta (2015).

- (2015), *Dialéctica y filosofía primera. Lectura de la Metafísica de Aristóteles*. Zaragoza: Prensas de la Universidad de Zaragoza.
- AUBENQUE, Pierre (2009), *Problèmes aristotéliennes*, Paris.
- BARNES, Jonathan (1980), «Aristotle and the methods of ethics», *Revue internationale de Philosophie* XXXIV, 490-511.
- BERTI, Enrico (2008), *Dialectique, physique et métaphysique. Études sur Aristote*. Louvain: Éd. Peeters.
- BRUNSCHWIG, Jacques (1967), « Introduction ». In *Aristote: Topiques*, Tome I. Paris: Les Belles Lettres.
- CELLUPRICA, Vicenza (arg.) (2003), *Il libro B della Metafisica di Aristotele*, Atti del Colloquio (Roma, 30 novembre-1 dicembre). Rome: Bibliopolis.
- COULOUBARITSIS, Lambros (1978-79), «Dialectique et philosophie chez Aristote», *Philosophia* VIII-IX, 229-256.
- CROISSANT, Jeanne (1986), « La dialectique chez Aristote », in J. Croissant, *Études de philosophie ancienne*, Brussels, 161-185 [1951].
- DIANO, Carlo (arg.) (1970), *L'attualità della problematica aristotelica*. Atti del convegno franco-italiano su Aristotele (Padova, 6-8 aprile 1967), Padova.
- EVANS, John D.G. (1977), *Aristotle's conception of dialectic*. Cambridge.
- IRWIN, Terence H. (1976-1977), «Aristotle's discovery of *Metaphysics*», *The review of metaphysics* XXXI, 210-229.
- LE BLOND, Jean-Marie (1939), *Logique et méthode selon Aristote*, Paris.
- LESZL, Walter (1970), *Logic and metaphysics in Aristotle*, Padova.
- (1975), *Aristotle's conception of ontology*, Padova.
- LUGARINI, Leo (1959), «Dialettica e filosofia in Aristotele», *Il Pensiero* 4, 48-69.
- (1972), *Aristotele e l'idea della filosofia*, Firenze, [1961].
- MADIGAN, Arthur (1999), *Aristotle. Metaphysics Books B and K 1-2*, Oxford: Clarendon Press.
- MOTTE, André & Christian RUTTEN (arg.) (2001), *Aporia dans la philosophie grecque des origines à Aristote*, L. Bauloye eta A. Lefka-ren lankidetzarekin, Louvain: La-Neuve.
- OWEN, Gwilym E.L. (arg.) (1968), *Aristotle on dialectic. The Topics*. Proceedings of the third symposium aristotelicum, Oxford.
- PERELMAN, Chaïm (1952), « Dialectique et dialogue », *Hermeneutik und Dialektik*, Tübingen, 77-83.
- (1958), *Rhétorique et philosophie. Pour une théorie de l'argumentation en Philosophie*, Paris.
- REGIS, Louis M. (1935), *L'opinion selon Aristote*, Paris.
- ROSSITTO, Cristina (2000), *Studi sulla dialettica in Aristotele*, Napoli.
- SICHIROLLO, Livio (1963), *Giustificazioni della dialettica in Aristotele*, Urbino.
- (1965) *Storicità della dialettica antica*, Padova.
- (1973) *La dialettica*, Milano.
- VIANNO, Carlo A. (1958), «La dialettica in Aristotele», *Rivista di Filosofia* 49, 154-178.
- WEIL, Éric (1951) « La place de la logique dans la pensée aristotélienne », *Revue de Métaphysique et de morale*, 283-315.